

BEZEROEKIN HARREMANAK

LiveVibes enpresak bezeroarekin harremanak horrela antolatuko ditu:

1- Laguntza pertsonala:

Ez dugu gure denda fisikoa edukiko, baizik eta Sony eta Apple dendetan salduko da gure produktua.

Bezeroei zerbitzua emateko online, gure telefonoa, emaila, sare sozialak, web-orriko arreta pertsonala... erraztuta izango dituzte. Haietan, kudeatzaileak izango dituzte beraiei laguntzeko.

2- Chat automatizatutako zerbitzua

Gure web-orriko bezeroentzako arreta atala IA batekin kontrolatuta izango da. Haren bidez gure bezeroek dituzten dudak argitu ahalko dituzte. IA-rekin eroso ez badaude, gure beste komunikabide batzuk erraztuta edukiko dituzte gurekin kontaktatzeko.

3- Komunitateak sortu

Komunitateak egongo dira bai gurekin bai beraien artean. Gurekin edukiko dituzten komunitateetan, gure produktuaren publizitatea eta deskontu iragarkiak egiteko aprobetxatuko dugu, baita ere gure eguneraketen, eskaintzen, albisteen, kontzertuen... berri emateko.

Beraien arteko komunitateetan, uste dugu beraien iritzia emango dutela produktuari buruz. Baita ere beraien artean dudak argitzeko eta iritzi onak partekatzeko.

Gure komunitateak Telegram, Instagram, Whatsapp... bezalako aplikazioetan sortuko ditugu, azkenaldian aplikazio hauetan sortutako komunitateetan gende asko harpidetzen delako.

Foroak ere sortuko ditugu, komunitateekin daukagun nahi berarekin.

4- Autozerbitzua

Ez dugu autozerbitzurik edukiko, uste dugulako gure produktua ez dela aproposa makina baten saltzeko, bai tamaina handiarengatik, eta bai prezio altua duelako.